

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak Nafarroan kirolaren arloko lanbideetan lanean hasi eta aritzeari buruzko Foru Legearen proiektua onartu du

Lanbide horiek arautzea proposatzen da, horiek jorratzeko beharrezko kualifikazioa eta esparru funtzionala zeintzuk diren zehaztuaz

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 23

Nafarroan kirolaren arloko lanbideetan lanean hasi eta aritzeari buruzko Foru Legearen proiektua onartu du gaurko bileran Foru Gobernuak. Horren helburu nagusia da horietako batzuetan aritzeko funtsezko alderdiak arautzea; hots, zeintzuk diren, zer-nolako kualifikazioak eskatzen diren zehaztea, eta bakoitzari dagokion esparru funtzional orokorra ematea. Hemendik aurrera, testua Nafarroako Parlamentura igorriko da, han eztabaidatu, eta, hala behar izanez gero, ondoren onar dezaten.

Modu horretan, arauaren bitartez, eremu hori Nafarroan arautzeko dagoen beharrari erantzuna eman nahi zaio. Ildo horretan, kontuan hartzen du “kirolaren praktika gero eta hazkunde eta inpaktu sozial handiagoa izaten ari den fenomenoetariko bat dela, eta pertsonentzat onura garrantzitsuak dituela onartzeko moduko baldintzetan egiten bada, baina osasun eta segurtasunerako mehatxu handia ere izan daitekeela beharrezko prestakuntzarik gabeko pertsonen zuzendaritza edo gainbegiradapean egiten bada”. Hori dela-eta, uste da Nafarroako kirol-sistemak eta gizarteak oro har behar bezala prestatuak profesionalak eta/edo hezitzaile fisikoak eta kirol-arlokoak behar dituela.

Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuak, Nafarroako Kirol Kontseiluaren bitartez, Foru Legearen aurreproiektua egiteko lanerako batzorde espezifikoa sortu zuen. Modu berean, parte hartzeko prozesua burutu zuten eremu horretako agente eta erakunde ezberdinekin, eta, azkenik, aurreproiektua jendaurrean erakutsi zuten. Parte hartzeko prozesu osoa amaitutakoan, hogeit hamar pertsona eta erakunderen 76 alegazio eta/edo proposamen jaso zituzten.

Araututako lanbideak

Lau titulu, hamasei xedapen gehigarri, zortzi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken lau xedapenaren bitartez, Lege-proiektuan arau honetan erregulatutako lanbideak zehazten dira; hona hemen zeintzuk diren: gorputz hezkuntzako irakaslea, kirol-monitorea, entrenatzailea, kirol-zuzendaria eta prestatzaile fisikoak.

Halaber, arauan jasotzen dira haien atribuzioak eta dagozkien prestakuntza-eskakizunak.

Era horretan, **gorputz hezkuntzako irakasleak** Gorputz

Hezkuntza eman ahal izango du dagozkion irakaskuntza-mailetan eta funtzio instrumental edo eratorri guztiak egin ahal izango ditu; hots, hezkuntza-leggedian aurreikusitakoak.

Kirol-monitoreak ondorengo funtzioak egin ditzake: plangintza, formakuntza, ikaskuntza, animazioa, egokitzapen fisikoa, egoera fisikoa berreskuratzea edo hobetzea, entrenamendu edo prestakuntza pertsonala, monitorizazioa, kontrola, gida, akonpainamendua, ebaluazioa eta antzeko funtzioak edozein kirolarirekin edo kirolari-talderekin, jarduera hori errendimenduko kirol-lehiara bideratuta ez badago. Kirol-monitoreak bere jarduera profesionala garatu ahal izango du prestakuntzako edo hastapeneko lehiaketan eremuan, errendimendura bideratuta ez daudenean.

Entrenatzailearen lanbideak aukera ematen du ondorengoak egiteko: entrenamendua, prestakuntza fisikoa eta teknikoa, hautapena, aholkularitza, plangintza, programazioa, zuzendaritza, gidaritza, kontrola, ebaluazioa, segimendua eta kirolarien eta taldeen antzeko funtzioak, errendimenduko lehiaketetan aurkeztea helburua denean.

Kirol-zuzendariaren lanbidean, honako hauekin zerikusia duten jarduera profesional guztiak egin daitezke: zuzendaritza teknikoa, programazioa, plangintza, koordinazioa, kontrola, ebaluazioa, gainbegiraketa eta antzeko funtzioak kirol-arloko zentro, zerbitzu, jarduera eta erakunde publiko zein pribatuen inguruan, kirolaren zientzietako ezagutza eta teknika propioak aplikatuaz. Halaber, kirol-zuzendariaren egitekoak izango dira kirol-monitorearen eta kirol-entrenatzailearen lanbideak dituztenek egiten dituzten funtzio teknikoak koordinatzea, berrikustea eta ebaluatzea.

Prestatzaile fisikoak jarduera fisikoen eta kirol-jardueren aholkularitza, plangintza, diseinu, ebaluazio tekniko-zientifiko, garapen eta gauzatze funtzioak egin ahal izango ditu, jarduera horiek pertsonen egoera fisikoa eta koordinazio-gaitasunak mantentzeko, garatzeko, hobetzeko, optimizatzeko eta berreskuratzeke direnean, haien bizi-kalitatea eta osasuna hobetzeko helburuarekin, edota lesioak eta patologiak dituzten pertsonak prebenitzeko, berrezitzeko, berregokitzeko eta berentrenatzeko funtzioak, jarduera fisiko eta kirol-arloko jardueren eta haien ezaugarri eta premietara egokitutako ariketa fisikoen bitartez.

Lege-proiektuaren I. eta II. tituluetan definitzen da arauak zein lanbide erregulatzen dituen; halaber, atribuzioak nahiz dagozkien prestakuntza-eskakizunak jasotzen dira.

Legearen III. tituluaren berriz, Nafarroan kirol-arloko lanbideetan lanean hasteko eta aritzeko baldintzak arautzen dira, eta, besteak beste, honako hauek bezalako gai ezberdinak jorratzen dira: Nafarroako Kirolaren Erregistroa, erantzukizunpeko adierazpena nahitaez aurkeztu beharra, kirol-arloko lanbidean aritzen direnek dituzten betebeharrak eta antzeko garrantzia duten bestelako gaiak.

IV. tituluaren Foru Legea betetzea bermatzera bideratutako zenbait arau-hauste eta zigor sailkatzen dira.

Alderdi nabarmenak

Nafarroan kirol-arloko lanbideetan lanean hasteko eta aritzeko gaur Foru Gobernuak onartutako Lege-proiektuak eremu soziala azpimarratzen du, bereziki genero-berdintasunari eta adin txikikoak babesteari dagokionean.

Genero-berdintasunari erreparatuta, diskriminazioa galaraztea aurreikusten da norgehiagoka maskulinoetan eta femeninoetan kualifikazioak eskatzerakoan. Horrez gain, neurri garrantzitsu bat jarri da berdintasuna sustatzearen aldetik, Kiroleko lanbideetan aritzeko.

Adin txikikoak babesteari dagokionean, neurriak hartu dira kirol-arloan profesionalak adin txikikoei egin dakizkiekeen sexu-abusuak prebenitzeko. Horretarako, aurreikuspenak sartu dira prestakuntza aldetik, protokoloak ezartzearekin batera fenomeno hori prebenitzeko eta horren aurrean erreakzionatzeko. Era beran, Erregistroan inskribatzea derrigorrezkoa izango da eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztea ere bai.

Arauak osasunean eta segurtasunean ere arreta jartzen du, batez ere datuak erregistratzeari eta

eskuratzeari eta lehen sorospenetan gutxieneko prestakuntza izatea eskatzeari dagokienean. Ildo horretan, Foru Legeak lanbide guztiei eskatzen die bihotz-biriketako bizkortze mailako prestakuntza izatea; gainera, prestakuntza hori aldian-aldian eguneratzera behartzen du. Halaber, boluntarioei prestakuntza-aldetik zer eskatu behar zaien arautzen du.

Bestalde, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren erregistroa aldatzea jasotzen da Legean, egun kirol-erakundeetara mugatzen dena. Horrela, arauaren bitartez, Nafarroako Kirolaren Erregistro bilakatuko litzateke, eta bi ataletan antolatua egongo da: Kirol Erakundeen Atala eta Kirol-arloko Profesionalen Atala.

Azkenik, proiektuan araua aplikatzen joateko progresibitatea jasotzen da, eta 2021eko irailera bitarteko epea jartzen du betetzeko.